

# 2024ko MEMORIA

Inspiratu, mobilizatu, jardutea



INDUSTRIA, TRANSIZIO  
ENERGETIKO ETA  
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y  
SOSTENIBILIDAD



## “Euskadi iraunkor eta lehiakor baterako trantsizioa gidatzea”

**Mikel Jauregi Letemendia**

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua.  
Ihoberen presidentea  
Eusko Jaurlaritz

Euskadik erronka konplexu eta erabakigarriak ditu etorkizun iraunkorrerako bidean. Badakigu klima- eta energia-trantsizioa garapen industrialetik bereizi ezina dela, eta, horregatik, helburu sendo batekin lan egiten dugu: industria gehiago, industria hobea eta emisio gutxiago. Industria izan da, da eta izango da gure lurraldearen motorra. Kalitatezko enpleguaren eta lehiakortasunaren iturri da, baina, era berean, Europaren berrindustrializazioa modu jasangarrian gidatzeko gure apustuaren muina ere bada. Euskadi klima-aldaketaren aurkako borrokan abangoardia izatea nahi dugu. Helburu hori lortzeko, neurri argiekin egiten dugu aurrera, hala nola Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Bulegoa edo Klimaren aldeko Herritarren Batzarra sortzea, emisioen murrizketan aurrera egiteko, industrian efizientzia energetikoa sustatzeko eta energia berriztagarrien ezarpena indartzeko, aldi berean herritarren parte hartzea bultzatuz.

Gizarte moderno bat, jasangarria izan nahi badu, jasangarritasun printzipioekin bat datorren industria batekin bakarrik izan daiteke. Horregatik, ingurumen eta energia irizpideak txertatzen ari gara politika sektorial guztietan. Betebehar bat izan beharrean, lehiakortasuna irabazteko aukera gisa hartzen dugu, ingurumenarekiko errespetuak gure ekonomiari zein gizarteari balio erantsia ematen diela sinetsita.

Ihobek funtsezko zeregina du erronka horretan, eta, lerro hauetatik, 2024an egindako aurrerapen eta lorpen nagusiak ezagutzera gonbidatzen zaituztet.



# “Etorkizunerako ekintza eraldatzaileaz betetako urtea”

**Alexander Boto Bastegieta**

Zuzendari nagusia

Ihobe, Ingurumen-jarduketarako Sozietate Publikoa

Eusko Jaurlaritza

2024a etorkizunerako oinarriak ezarri dituen urtea izan da. Aurten, Euskadik urrats erabakigarria eman du Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Legea onartuta. Horrek indartu egiten du neutraltasun klimatikoarekin eta 2050erako trantsizio justuarekin dugun konpromisoa, eta aldaketaren motor gisa kokatzen gaitu, arintze politikak, lurralde egokitzapena klima inpaktuen aurrean eta inor atzean geratzea bermatuko duen gizarte ekitatea bizkortuz.

2024ak ere Euskadi Europako abangoardian jarri du, Teknologia Garbien Zerrenda berria argitaratuta, energia trantsizioa eta ekonomia zirkularra bultzatzeko funtsezko tresna fiskala. Zerrenda honi esker, enpresek teknologia jasangarrietan inbertitzeko kostuaren % 30 kendu ahal izango dute, eta gure ekonomiaren deskarbonizazioa bizkortzeko funtsezko tresna bihurtuko da.

Eta haratago begiratzen dugu, 2025era begiratzen dugu, ilusio eta erabaki berarekin. Apirilean, Basque Circular Summit itzuliko da, Europa hegoaldeko ekonomia zirkularreko ekitaldirik handiena. Hiru egunez, Bilbo izango da erronkak eta aukerak aztertzeko, aliantzak sendotzeko eta Euskadik garapen eredu jasangarriago baterantz aurrera egiteko inspirazio iturri gisa duen zeregina nabarmentzeko agertokia.

Memoria honek mugarri horiek eta beste asko jasotzen ditu, eta lhoben sinetsita gaude euskal gizartearen inspiratzea eta mobilizatzea dela etorkizun jasangarria eraikitzeko bidea. Lan gogor egiten jarraituko dugu, trantsizio energetikoa eta klimatikoa guztiok partekatzen dugun errealitatea izan dadin, gure inguruneak eta gure garaiak eskatzen dituzten aldaketak ausardiaz gidatuz.

# AURKIBIDEA

GURE MISIOA **\_05**

GURE ERRONKAK **\_07**

GURE JARDUERA-EREMUAK **\_08**

2024 DATUETAN **\_09**

2024 IRUDIETAN **\_11**

2024 ARGITALPENETAN **\_12**

EKOETXEA **\_14**

UDALSAREA **\_15**

ALIANTZAK **\_16**

NAZIOARTEKO SAREAK **\_17**

INGURUMEN KOMUNIKAZIOA **\_19**

IHOBEREN PERTSONAK **\_22**

GARDENTASUNA **\_25**


ERANTZUKIZUN SOZIALA **\_26**

BERDINTASUNA **\_29**

EUSKARA **\_30**


# **GURE MISIOA** ingurumena babestea eta hobetzea da, baita Euskadiren jasangarritasunerako trantsizioari ekitea ere.

Eusko Jaurlaritzaren erakunde publiko den aldetik, lhoben ingurumena babesten eta hobetzen dugu, Euskadiko trantsizio klimatikoari lotutako erronka nagusiei helduz, eta, horrela, Euskadiren erresilientzia eta lehiakortasuna hobetuz.



## NOLA?

- | Kalitateko ezagutza teknikoa sortuz eta zabalduz.
- | Politika publikoen diseinuan, hedapenean eta ebaluazioan lagunduz.
- | Gizartea eta bere eragileak ingurumenaren aldetik iraunkorra izango den eraldaketa baterantz mobilizatzea eta laguntzea ahalbidetuko duten ekintza-tresnak garatuz.



## GURE ERRONKAK

- A** | Ihoberen posizioa indartzea, Euskadiko trantsizio klimatikoa eta garapen ekonomiko jasangarria gidatzeko funtsezko eragile publiko gisa.
- B** | Arau-eskakizunei erantzuten laguntzea, Euskadin ingurumen-plangintza politikoa hedatzen eta ingurumena beste politika sektorial batzuetara zeharkakotzen lagunduz eta erraztuz.
- C** | Interes talde sorta zabal batekin lankidetzan aritzea, Euskadin klima trantsizio justua bultzatzeko.
- D** | Ihobe erakunde bikaina bihurtzea, giza taldearen eta erakundearen beraren gaitasunak egokitzen direla ziurtatuz, lurraldeari balioa emango dion kalitatezko zerbitzu publikoa eskaintzeko.

# GURE JARDUERA-EREMUAK



**EKONOMIA ZIRKULARRA**



**HONDAKINAK**



**EKINTZA KLIMATIKOA**



**LURZORUAREN BABESA**



**TOKIKO JASANGARRITASUNA**



**INGURUMEN-HEZKUNTZA**



**EKOBERRIKUNTZA**

# 2024 DATUETAN

**12.609**  
**ekintza enprekin**

ekonomia zirkularrean,  
klima aldaketan eta  
lurzoru kutsatuetan  
mobilizatzeko.

**148.157**  
**pertsonak**

parte hartu dute  
Ekoetxea sarearekin  
egindako aldaketan.

Ihoberen guztizko  
gastuaren

**21%**  
**berrikuntzan**

**3**

**proiektu**

Klimatek programaren  
bidez klima-aldaketara  
egokitzeko  
berrikuntzarako.

**3.078**

**ekintza udalerriekin  
eta erakunde publikoekin**

klima aldaketan, lurzoruetan,  
ekonomia zirkularrean eta  
erosketa berdean mobilizatzeko.

**106**

**ekitaldi**

ingurumenaren aldetik  
ziurtatuta Erronka  
Garbiarekin.

**67**

**municipios**

han elaborado sus  
Planes Locales de Clima  
y Energía.

**80**

**ekintza**

hondakinak biltzeko eta  
garbitzeko, Lets Clean  
Up Euskadi! ekimenaren  
baruan.

# 2024 IRUDIETAN




**ASSTEEK**  
Euskadiko Klima eta Ener

# 2024 ARGITALPENETAN



Esku hartzeak biltzen ditu, baita ikasitako ikasgaiak, oztupoak, arrakasta faktoreak eta informazio praktikoa ere, NOKen ezarpena inspiratzeko



Produktuen diseinuan ingurumen irizpideak eta zirkulartasun ikuspegia integratzeko jarraibideak ematen ditu.



Euskal kostaldea egokitzeko orientabide multzo bat proposatzen du, ildo horretan aurrera egiten jarraitzeko.



Eskuragarri dauden ingurumen, gizarte eta gobernantza kalifikazioko jardura sorta zabala biltzen eta sailkatzen du.

## 2024 ARGITALPENETAN




Enpresari ingurumen eta zerga onurak ekartzen dizkiote, inbertsio kostuaren % 30eko kenkari fiskala lortzeko aukera emanez.



Herritarren osasunean eragina duten ingurumen-determinatzaileen egoera, bilakaera eta joerak eskaintzen ditu.



2017 eta 2023 artean Ekoberrikuntza Zirkularreko Programaren esparruan amaitutako proiektuen emaitzak jasotzen ditu.



Produktuaren zerbitzazioaren bidez ekonomia zirkularren printzipioekin lerrokatutako negozio eredu bat ezartzeko metodologia bat eskaintzen du.

# EKOETXEA



Ekoetxea Euskadiko Ingurumen Zentroen Sareak, Eusko Jaurlaritzak lhobe sozietate publikoaren bitartez kudeatzen duenak, esperientzia paregabeak eskaintzen ditu leku enblematikoetan, ingurumena zaintzearen garrantziari buruzko kontzientzia-ahotsa hobetzeko eta egunerokotasunean ohitura jasangarriak hartuz ekintzara igarotzeko.

Bere ASMOA pertsonen pentsatzeko eta jarduteko modua modu jasangarrian aldatzea da.

Euskadiko gune estrategikoetan kokatutako lau gunek osatzen dute: Urdaibai eta Meatzaldea, Bizkaian; eta Txingudi eta Azpeitia, Gipuzkoan. Ikastetxe bakoitzak bere ingurunera egokitutako jarduerak eskaintzen ditu, hala nola erakusketak, tailerrak, ibilbide gidatuak eta hezkuntza-programak.

[Izan zaituz aldaketaren parte](#)

**140.00**  
bisita presentzial  
baino gehiago

**28.000**  
ikaslek  
gozatu dute  
iraunkortasunari buruz  
ikasten

Sareko 4 ikastetxeetan  
eskainitako  
**278**  
experiencias

10etik  
**9,3**ko  
balorazioa

# UDALSAREA

Udalsarea 2030 udalerrri jasangarrien euskal sarea da, tokiko jasangarritasuna sustatzea helburu duena eta Euskadiko administrazio publikoko mailen arteko koordinazioa sustatzen duena –Eusko Jaurlaritza, erakunde publikoak, foru-aldundiak eta eskualdeetako eta udaletako erakundeak–, eta horiek protagonismo berezia hartzen dute. Gainera, hura osatzen duten toki-erakundeen jasangarritasun-politikak eta -ekintza-planak dinamizatzeaz arduratzen da, betiere Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) lerrokatuta.

Udalsarea 2030en MISIOA da euska udalerrriak eta eskualdeak mobilizatzea Garapen Jasangarriko Helburuak eta 2030 Agenda lortzeko, tokiko ekintza eraldatzailearen eta tokiko eta udalaz gaindiko politiken lerrokatzearen eta koherentziaren bidez.



udalsarea  
2030

[Informazio gehiago](#) 

# ALIA NTZAK

Ihoberen bereizgarri nagusia beste erakunde eta entitate batzuekiko konpromiso irmoa eta etengabeko lankidetzaren mantentzea da. Erakunde eta entitate horiekin ingurumen-politikaren arloan lankidetzaren dinamika bat du, ekintza klimatikoaren, ekonomia zirkularren garapenaren eta tokiko jasangarritasunaren bidez ingurumen-hobekuntza lortzeko Euskadi osoan.



2024an, aliantza guztiekin trukatzeko eta sinergiak bilatzeko jardunaldi bat egin da. Horrez gain, Elankidetzako eta lhobeko taldeen bilera tekniko bat egon zen ingurumen eta lankidetzaren politiken integrazioa hobetzeko. Era berean, nabarmentzekoa da lhobek Euskalitek eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak bultzatutako GJHen Kudeaketa Ereduan parte hartu duela.

# NAZIOARTEKO SAREAK



Euskadi ENCOREren Batzorde Betearazleko kide da. Plataforma politiko horrek Europako 122 gobernu biltzen ditu EBko ingurumen-politika eraginkortasunez aplikatzen laguntzeko, gobernantza hobetzeko eta hiru esparrutan jarduteko: ekintza klimatikoaren bidez zero emisioen helburua lortzea; ekosistemen zerbitzuei eustea eta hobetzea; eta gizarte zirkular bat integratzea bidezko trantsizioa sortzeko.




Under2 Coalition-eko Batzorde Betearazleko kide da Euskadi, Parisko Akordioari jarraikiz emisioak murrizteko konpromisoa hartu duten estatu eta eskualdeen munduko sare handieneko kidea. Sareak 260 gobernu kide baino gehiago ditu, ekonomia globalaren % 50, eta ekintza klimatikoan, politika publikoen berrikuntzan eta gardentasunean lan egiten dute.



2024an, Euskadik Eskoziari eman dio garapen jasangarriaren aldeko eskualdeetako gobernuen sare globaleko (Regions4) lehendakaritzaren erreleboa. 300 milioi pertsona baino gehiago ordezkatzeko dituzten 77 eskualdetako komunitate bat utzi du ondare gisa, klima-aldaketara egokitzeko eta biodibertsitatea babesteko lan egin du, eta 2030erako Agenda izan du etorkizun jasangarri eta erresiliente bat bermatzeko ibilbide-orri gisa.


## NAZIOARTEKO SAREAK



Nazioarteko plataformetan  
eta sareetan

### argitaratutako **9** **9 jardunbide egoki**

(generoa eta klima-aldaketa, LIFE IP Urban Klima 2050 proiektua, Regions4Climate proiektua, lurzorua babesa, klima-geldotasunaren kostuak, naturan oinarritutako irtenbideak eta eraikuntza jasangarria).



### nazioarteko **6** **ingurumen-ekitaldi**

Saileko kargudunen parte-hartzearekin

- BEI Adaptation Days Luxenburgon, apirilaren 24an eta 25ean
- R4en Batzar Nagusia Rio de Janeiroan, ekainaren 26tik 28ra
- Under2 Coalitionen ministro-bilera Bruselan, ekainaren 18an
- NBEren Etorkizunaren Goi Bilera New Yorken, irailaren 21ean
- Nazio Batuen Erakundearen Action Days New Yorken, irailaren 22an
- Hirietarako Klima Hezkuntza, UNESCOren ekitaldia New Yorken, irailaren 27an




# INGURUMEN KOMUNIKAZIOA

Ihoben uste dugu kalitatezko ingurumen-komunikazioa funtsezkoa dela gizarteak iraunkortasunaren bidean aurrera egin dezan.

↳ **Ingurumen  
Komunikazioaren  
Eskola**

↳ **Ingurumen  
Kazetaritzako  
Saria**

## INGURUMEN KOMUNIKAZIOA



# INGURUMEN KOMUNIKAZIOAREN ESKOLA

Lankidetzeta-hitzarmen bat dugu APIA Ingurumen Informazioko Kazetarien Elkartearekin. Hitzarmen horretatik sortu zen, besteak beste, Ingurumen Komunikazioaren Eskola, UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatearen uda ikastaroetan kokatuta, bi kezka handiri erantzuteko: komunikazioa eta ingurumena.

Eskolaren seigarren edizioa 2024ko irailaren 12an egin zen, eta bilakaera izan zuen, **sakoneko elkarrizketen formatu berri bati** bide emateko, hainbat ikuspegitatik **trantsizio energetiko eta klimatikoan aurrera egiten** eta kontakizuna aldatzen laguntzen ari direnekin, **ingurumen gaiak gehiago eta hobeto komunikatzeko**.

Helburuak izan ziren inspiratzea herritarrak ekintzara mugiarazteko; krisi klimatikoari eta beste ingurumen erronka batzuei aurre egiteko; eta ingurumen komunikaziorako formatu, euskarri eta kanal berriak aprobetxatzeko.





# INGURUMEN KAZETARITZAKO SARIA

Euskal Kazetarien Elkartearekin eta Kazetarien Euskal Elkargoarekin (EKE-KEE) batera egindako lanaren emaitza gisa, 2019tik eta ltoberen laguntzari esker, urtero ematen da **Euskadiko Ingurumen Kazetaritzako Saria**, informazioaren profesionalak, besteak beste, garapen jasagarria hedatzeko, klima-aldaketaren ondorioak zabaltzeko edo natura-ingurunearen kontserbazioa sustatzeko egiten duten lana aintzatesteko.

2024an, **Jokin Aldazabalek** jaso zuen saria.



# IHOBEREN PERTSONAK

Gardentasunarekin, gobernu onarekin eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin konprometitutako erakundea gara

**53**

**pertsona**

41 emakume / 12 gizon

**51**

**urteko**

batez besteko adina

**%91<sup>k</sup>**

**kontratu mugagabea**

dute

**%85<sup>eko</sup>**

**goi-mailako titulazioa**

dute

**7,44<sup>ko</sup>**

**gogobetetzea**

Ihoberen lanarekin

# ADMINISTRAZIO KONTSEILUA



## **PRESIDENTEA**

**MIKEL JAUREGI LETEMENDIA**

Industria, Trantsizio Energetiko  
eta Jasangarritasuneko sailburua



## **PRESIDENTEORDETZA**

**JOSU BILBAO BEGOÑA**

Ingurumen Jasangarritasuneko  
sailburuordea



## **BOKALA**

**JAVIER AGUIRRE ORCAJO**

Ingurumenaren Kalitatearen eta  
Ekonomia Zirkularraren zuzendaria



## **BOKALA**

**ALBERTO JOSÉ FERNÁNDEZ GONZÁLEZ**

Teknologia eta Berrikuntzako zuzendaria



## **BOKALA**

**IÑAKI ALONSO ARCE**

Ogasuneko sailburuordea



## **BOKALA**

**OLGA MARTÍN GARCÍA**

Aclima-ko zuzendari nagusia



## **IDAZKARI EZ-KONTSEILARIA**

**JOSÉ ANTONIO ARMOLEA SOLABARRIETA**

Ihobeko zuzendari juridikoa



## **ZUZENDARITZA NAGUSIA**

**ALEXANDER BOTO BASTEGIETA**

Ihobeko zuzendari nagusia

# IHOBEREN ORGANIGRAMA



**Alexander Boto Bastegieta**  
Zuzendaritza Nagusia

**Jaione Lanborena Elorduy**  
Zuzendaritza Korporatiboa

**María García Flecha**  
Estrategia eta Berrikuntza

**Jose Antonio Armolea Solabarrieta**  
Aholkularitza juridikoa

**José María Fernández Alcalá**  
Ekonomia Zirkularra

**Mari Mar Alonso Martín**  
Ekintza klimatikoa

**Xabier González Vegas**  
Ingurumen Jasangarritasuna

# GARDENTASUNA

**13,7**

**milioi €**

2024ko ustiapen  
aurrekontua

**%100**

**ean**

2024ko aurrekontua  
gauzatzea

**%0**ko

**zorpetze**

finantzarioa 2024an

**12**

**egun**

2024an enpresa  
hornitzaileei fakturak  
ordaintzeko batez  
besteko epea

# ERANTZUKIZUN SOZIALA

Gizarte-ingurunea osatzen duten erakundeen garapena zaintzen dugu. Horretarako, gizarte-lana egin dezakegun jardueretan aktiboki parte hartzen dugu, gure gaitasun eta balioekin bat etorritik, eta gure estrategia indartzen dugu, ingurumen-jasangarritasuna laguntzen duten neurriak bultzatzeari utzi gabe.


Hori guztia parte-hartzetik abiatuta egiten dugu, haztegi bat sortzeko eta horri esker lankidetzak, gizarteratze eta hezkuntzako jarduerak proposatu eta zabaltzeko. lhoben, **Sozietatea interes-talde gisa** definitu eta ezarri dugu, hiru irismen konkretuekin:

**A** | Erantzukizuna **munduko eskualderik behartsuenei** dagokienez, beren garapenean laguntzeko, lankidetzak-eskema baten pean.

**B** | Erantzukizuna **euskal gazteriari** dagokionez, lan-aukerak eta giza gaitasunak hobetzeko aukerak bultzatzeko, gure herrialdeko ingurumen-erronka nagusiekin lotuta.

**C** | Erantzukizuna **ingurumenari eta jasangarritasunari** dagokienez, gure jarduerak nola garatzen dugun birpentsatuz eta hobetuz, tokikotik ikuspegi globalarekin, eta gure jardueran eredugarri izateko gizarte- eta ingurumen-konpromisoarekin.

Hori guztia, aintzat hartuta gure inguruko beharrak, gure gaitasunak eta gure balioak, gure politiken eta estrategien parte izanda. Eta lhobeko **pertsonen parte-hartzetik**, gure ikuspegiarekin lerrokatutako konpromiso pertsonalen aktibazioa bultzatuz.



# 1 IRISMENA LANKIDETZA

- A | **Bilera Elankidetzarekin**, bi erakundeen jardueretan ingurumen- eta lankidetzazko irizpideak hedatzeko eta integratzeko, hitzarmenaren esparruan eta politika publikoak integratzeko premian.
- B | **“Lankidetzazko Funtsari”** aurrekontuaren % **0,1** zuzkitzea eta proiektu pilotu baterako ekarpena egitea, Elankidetzaren eskutik, 2023an Malicounda eskualdean (Senegal) ingurumen izaerako proiektu bat definitzeko diagnostikoaren ondoriozko ekintzak hedatzeko.
- C | Ihebeko langileen **ekarpena** Eusko Jaurlaritzaren **0,7 funtsera**

## ERANTZUKIZUN SOZIALA



# 2 IRISMENA

## KONTRATAZIOA, LANERATZEA

- A | **Lanbideren programan** parte hartu dugu, urtebeterako 20 profesional kontratazeko, lan-merkatuan izandako lehen esperientziak kontatzeko eta ingurumenarekiko ezagutza eta sentsibilizazioa zabaltzeko.
- B | Batez beste hiru **persona Dualen** egonaldia lhoben enpresaren jardueraren atal desberdinetan.
- C | Era **altruistan** parte hartu dugu hainbat **master eta graduondoko ikastarotan** ingurumen-gaiak irakasten.



# 3 IRISMENA


## ERANTZUKIZUNA INGURUMENAREKIN ETA JASANGARRITASUNAREKIN

- A | Ingurumena: lhobek EMAS ziurtagiria eskuratzea
- B | Laneratzeko enpresen eta enplegu-zentro berezien fakturazioan % 100eko igoera berri bat, laneratzeko 8 enpresa eta enplegu-zentro berezirekin ere kontratatuta, hau da, kontratazio mota horren xede izan daitekeen fakturazioaren % 33.
- C | Bizkaia Plazako eraikineko beste sozietate publikoekin batera ikuspegi soziala duten ekintzetan laguntzea, eta, zehazki, genero indarkeriarekin, transfobiarekin, osasun mentalekin, euskararekin eta berdintasunarekin lotutako jardueretan. Nabarmentzekoa da lhobek mugikorren eta tableten sentsibilizazio eta bilketa kanpaina abiarazi duela, Alboan GKEaren proiektuarekin lankidetzan.
- D | lhoberen 0 emisioko ibilgailuen parkea % 100ean mantentzea.

# BERDINTASUNA

**Emakundek** emandako «**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea**» aitortzen daukagu. Sare hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen bereizgarria duten eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko borondatezko konpromisoa duten erakundeek osatzen dute.

emakumeen eta gizonen  
berdintasunerako  
lankidetzaren erakundea



entidad colaboradora  
para la igualdad de  
mujeres y hombres

Ihoberen emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Planak, bere 4 jarduera ardatzen barruan, gure jarduerari lotutako bat du: III. ardatza. Ingurumenaren eta klima aldaketaren kudeaketa genero ikuspegiarekin. Horregatik, 2024an **genero ikuspegia txertatu dugu proiektu, programa eta zerbitzu batzuen kudeaketan**. Genero ikuspegia duen lehen aurrekontua ere egin dugu.

**Klima aldaketa eta genero ikuspegia toki eremuan sartzeko proiektu pilotu** bat jarri dugu abian, 'Klima aldaketa Euskadin generoaren ikuspegitik' argitalpenaren ondoriozko erronkak kontuan hartuta, Euskadiko 18 toki erakunderekin batera.

**"Plantillako generoaren arabeko soldata arrakalaren kalkulua eta azterketa"** ere egin dugu, EDE Fundazioaren laguntzarekin.

Berdintasun politikaren gobernantza eraginkorrerako, **Ihoben Berdintasun Talde** bat eratu dugu, berdintasuna sustatzearekin lotutako lan guztiak bultzatzeko dedikazio espezifikoekin.



# EUSKARA

hoben gure gain hartzen dugu euskara bultzatzeko eta erabiltzeko konpromisoa, 2024ko Euskararen Nazioarteko Egunaren Adierazpenaren bidez.

Gainera, 2024an, aholkularitza zerbitzu bat kontratatu genuen lhoben euskararen erabilera normalizatzeko. Euskararen Plan Estrategikoa egiteko lehen urrats gisa, egoeraren diagnostikoa egiten dugu, bai kudeaketari dagokionez, bai erabilerari dagokionez.





ABENDUAK 3  
**bat, bi... ehun!**  
Euskararen geroa ehunduz  
EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2024

### DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA DE 2024. DECLARACIÓN

Un hilo, y un hilo, y uno, y otro... dos, otro más... lo importante es la suma, ese tejido individual y, a la vez, colectivo, que conforman todos los hilos trenzados entre sí. Lo realmente importante es la creación colectiva a partir de unos simples hilos. El arte textil. El movimiento de los telares. Anudando hilos en las intersecciones. Cortes y uniones entre hilos finos o gruesos. Rojos, azules o blancos... Mirándose unos a otros. Nudos convertidos en puntos de encuentro. Cada cual con su personalidad. Hilos gruesos compartiendo espacio con hillitos. Hilos viejos junto a otros más jóvenes. La nada, en solitario; el todo, en conjunto. ¡El lienzo! ¡El lienzo tejido por toda una comunidad!

Entre todos formamos un taller de artesanos que, trabajando a veces con hilos cortos y a veces con hilos más largos, respuntamos, remendamos y rematamos nuestras respectivas soledades. Abriendo y cerrando. Zurciendo, hilvanando y desociando. Somos el movimiento que estira la mano para relajarla después. El telar del euskera. El telar del futuro de lo que ya somos.

Viejo es el telar del euskera. Quienes amamos nuestra lengua, quienes se han dedicado a tejer hilos y más hilos a lo largo de su vida son tantos ahora como lo eran antes. Algunos sabiendo euskera; otros desconociéndolo. La defensa del euskera engloba a diferentes lenguas, a diferentes tipos de habitantes, y todas y todos formamos el mismo tejido. El tejido de quienes estamos en marcha.

Las iniciativas a favor del euskera se han mantenido sin interrupción a lo largo de los años gracias al esfuerzo tenaz de quienes han sido compañeros de viaje. Todos ellos y ellas han sido eslabones de la cadena que constituye el futuro del euskera. La suya ha sido una labor imprescindible, porque el euskera siempre ha necesitado de su presencia. Han sido unos acompañantes incansables. Un verdadero colectivo. Euskaltzais que han estado siempre allí donde había que arrimar el hombro, desde las agrupaciones. Colectivos que, a fuerza de perseverancia, han hecho realidad un sueño, como en un juego, y, en definitiva, se han convertido por méritos propios en los grandes protagonistas de este telar que es el euskera.

Un hilo, y un hilo... y otro... dos y dos, y otro. Pero dos o uno, y uno. A lo mejor, otro. O, tal vez, uno y medio. Sin embargo, en el lienzo tejido por este colectivo que trabajó por el euskera la acción se va detallando. Como hacemos con los hilos, estiramos y aflojamos. Y en un mundo tan global el empuje colectivo parece que pierde fuerza. Lo imposible. Como si los hilos formasen de pronto un enorme nudo que empujara el tejido. Que cuesta soltar con las manos. Miedo a abandonar el conjunto. Hay un vacío en el tejido. Un pequeño agujero en el dibujo. En un momento en el que la responsabilidad colectiva se aleja, también parece alejarse el activismo, y aparece un agujero en el tejido que no podemos llenar. Ante nuestros ojos se perfila ese no-lugar donde la mano no llega a actuar.

Si el tejido del euskera es delicado. Y para mantenerlo cuidado, cruzamos hilos o agrandamos y aflojamos nudos. Color a color. Remendamos la tela. Fila a fila. Entretejiendo. Entrelazando. Convirtiendo el desgarrar en algo hermoso, tanto visto de cerca como de lejos. Porque también somos un agujero, un hilo discontinuo y, a la vez, una amalgama. En el telar del euskera, la continuidad pasa por seguir trabajando. La revitalización pasa por seguir trabajando. Movimiento social. Sector público, asociaciones, trabajadores y familiares. Somos acción a favor del euskera. Para el euskera y lo que queremos ser gracias a él. Somos el telar del euskera. Los telares inquebrantables de nuestro futuro.

En este día del euskera, es de justicia reconocer la enorme labor realizada por personas e instituciones que han dedicado sus esfuerzos a tejer el lienzo de nuestra lengua. La revitalización del euskera es un proceso imparitable y nuestra responsabilidad, siempre desde el reconocimiento del trabajo llevado a cabo por los demás, pasa por crear las condiciones que permitan responder adecuadamente a los nuevos retos del euskera.

El ejercicio de tejer el euskera es responsabilidad de todas las personas. Instituciones públicas y agentes sociales. La acción es imprescindible. El euskera necesita movimiento para mantener su esencia y vitalidad; para que su luz nos haga brillar desde la diversidad.

El euskera es de todas y de todos. De quienes estamos aquí y de quienes están por llegar. Avancemos decididamente por el camino del euskera.



# Konektatu, ezagutu, partekatu

Izan zaitez gure online komunitatearen parte



[www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INDUSTRIA, TRANSIZIO  
ENERGETIKO ETA  
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y  
SOSTENIBILIDAD